ULIAZPI

## "ULIAZPI" ADMINISTRAZIO FORU ERAKUNDE AUTONOMOA "ULIAZPI"

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakunde Autonomoa, 8/1989 Foru Arauaren bitartez sortu zen, eta bere helburua, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren eta adimen-urritasun larria duten pertsonei arreta eskaintzea da, hainbat eratako zerbitzuak eskainiz, hala nola: egoitzazkoak, eguneko zentroa, aldi baterako egonaldiak, etxeko laguntza, eta abar.

Uliazpiren eginkizuna zerbitzuak eta babesa eskaintzea da, Gipuzkoan Adimen Urritasuna duten pertsonen eta beren familien bizi-kalitatea garatzen laguntzeko.

Uliazpik eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

- Etxebizitza.
- Eguneko Arreta.
- Atsedena hartzeko edo Aldi baterako Egonaldiak.
- Laguntza Teknikoa.

Zerbitzu horien bidez, erabiltzaile bakoitzak banan-banako arreta jasotzen du, "pertsonaren araberako plangintzan" oinarritua, eta horren bidez bizi-kalitatearen dimentsio ugariak lehenetsi eta zehazten dira (ongizate fisiko nahiz emozionala, garapen pertsonala, harremanak eta gizarteratzea, hautatzea eta erabakiak hartzea) bakoitzaren behar eta lehentasunen arabera.

Etxebizitza, eguneko arreta eta atseden zerbitzuak honako zentroen bitartez eskaintzen dira: Donostia (Donostian), Ategorrieta (Donostian), Fraisoro (Zizurkilen), Zubieta (Hondarribian), Zubillaga Dk. (Bergaran) eta Egogain Zentroaren solairu bat erabiltzen da (Eibarren).

## ORGANISMO AUTÓNOMO FORAL ADMINISTRATIVO "ULIAZPI"

El Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa ULIAZPI fue creado mediante Norma Foral 8/1989 y su fin es la atención de las personas con discapacidad intelectual grave residentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de distintos tipos de servicios como son: residenciales, centro de día, estancias temporales, apoyo en el hogar, etc.

La Misión de Uliazpi es proporcionar servicios y apoyos que contribuyen al desarrollo de la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual y sus familias de Gipuzkoa.

Los servicios que proporciona Uliazpi son:

- Vivienda.
- Atención de Día.
- Respiro o Estancias Temporales.
- Apoyo Técnico.

Estos servicios se fundamentan en una atención individualizada basada en una "planificación centrada en la persona" mediante la cual se prioriza y concentran las diversas dimensiones de calidad de vida (bienestar físico y emocional, desarrollo personal, relaciones o inclusión social, elección y toma de decisiones…) en función de sus necesidades y preferencias.

Los servicios de vivienda, atención de día y respiro se prestan a través de los centros: Donostia (en Donostia), Ategorrieta (en Donostia), Fraisoro (en Zizurkil), Zubieta (en Hondarribia), Dr. Zubillaga (en Bergara) y la utilización de una planta del Centro Egogain (en Eibar).

**2019ko aurrekontuan egindako aldaketak, 2018koarekin alderatuz**

**Diru-sarrerak:**

- **3. Kapitulua: Tasak**
2019ko aurrekontuak 2018an baino 39.396 euro gehiago jasotzen ditu, eta horren arrazoi nagusia, hain zuzen ere, pertsona erabiltzaileek egingo dituzten ekarpenetan gehikuntza aurreikusi izana da, gure ustez horixe gertatuko baita prestazioek eta pentsioek izandako gorakadaren ondorioz.

- **4. Kapitulua: Transferentzia arruntak Aldundia**
2019ko aurrekontuak, 16.994.500 euroko zenbatekoa jasotzen du kapitulu honen barruan, hots, %4,58 gehiago, eta hori, batez ere, 1. Kapituluan izandako gehikuntzaren ondorio da, aurrerago azalduko den moduan.

- **5. Kapitulua: Ondare-sarrera**
Ez da inolako aldaketarik aurreikusten.

- **7. Kapitulua: Kapital-transferentziak**
2019. urterako, 460.000 euroko zenbatekoa aurreikusten da inbertsioak finantzatu ahal izateko, aurrerago azalduko den bezala, eta 2018. urteko transferentziak baino % 22,7 gutxiago dira.

- **8. Kapitulua: Finantza Aktiboak**
2019. ekitaldirako ez da inolako aldaketarik aurreikusten.

**Modificaciones del presupuesto 2019 sobre el 2018**

**Ingresos:**

- **Capítulo 3: Tasas**
El presupuesto del 2019 incorpora
39.396 euros más que el 2018, que obedece fundamentalmente al incremento previsto en las aportaciones de las personas usuarias que es la que estimamos se va a producir por el incremento de prestaciones y pensiones.

- **Capítulo 4: Transferencias corrientes Diputación**
El presupuesto del 2019, contempla en este capítulo un importe de 16.994.500 euros, un 4,58% más, consecuencia fundamentalmente del incremento producido en el Capítulo 1, que más adelante se explica.

- **Capítulo 5: Ingresos patrimoniales**
No se prevé ninguna variación.

- **Capítulo 7**: **Transferencias de capital** Para el 2019, se contempla un importe de 460.000 euros para la financiación de las inversiones que más adelante se explica, y supone un 22,7% menos que las transferencias en el 2018.

- **Capítulo 8: Activos financieros**
No se prevé ninguna variación para el ejercicio 2019.

**Gastuak:**

- **1. Kapitulua: Pertsonalaren gastuak**
Kapitulu honetan aurreikusitako gehikuntza honako kontzeptu hauengatik da:

a) 2019ko aurrekontuan aurreikusitako soldata-igoera % 2,2koa da 2018ko soldatekin alderatuta. Negoziatzen ari garen hitzarmen kolektiboaren negoziazio horrek aurrekontuaren gainean eduki ditzakeen ondorioak ere jasotzen dira.

b) 2019.ko ekitaldian ez da plazen aldaketa garrantzitsurik aurreikusten, baina bai ordea egokitzapen batzuk Eguneko Arreta zerbitzuan. Horrela, Egogaingo Eguneko Zentroko 15 plazak betetzera iritsiko gara, eta Fraisoroko Eguneko Zentrorako aurreikusitako plazak 5 gutxiago izango dira, eskaerarik ez dagoelako.

   Halaber, Donostia Zentroko sukaldea bertako langile propioen bidez osatuko da, Ategorrietako Zentroaren hornidura Donostiako Zentroko sukaldetik egitea aurreikusten baita.

c) 2016. urtean abian jarritako Hizkuntza Kudeaketa Hobetzeko Planaren helburua Gipuzkoako Foru Aldundiak finkatutako helburu orokorrak betetzea da. Uliazpik hizkuntza-kudeaketaren alorrean ere erdietsi nahi du bikaintasun hori, eta horri begira, 2017. eta 2018. urtean erabilitako baliabide berberak erabiliko ditu, betiere bere langileen hizkuntza-gaitasunak hobetzeko xedearekin.

- **2. Kapitulua: Ondasunak eta zerbitzuak**
Kapitulu honek 92.000 euroko gehikuntza izan du, 2018koarekin alderatuta % 1,93koa, eta

**Gastos:**

- **Capítulo 1: Gastos de personal**
El incremento previsto en este capítulo se debe a los siguientes conceptos:

a) La subida salarial contemplada en el presupuesto del 2019 es de un 2,2% sobre los salarios del 2018. También se recogen las consecuencias que sobre el presupuesto puede tener la negociación del convenio colectivo que se está negociando.

b) En el ejercicio 2019 no se prevé modificaciones importantes de plazas, pero sí algunos ajustes en el servicio de Atención de Día. Así llegaremos a cubrir las 15 plazas el Centro de Día de Egogain y se reduce en 5 plazas las previstas para el Centro de Día de Fraisoro por falta de demanda.

   Así mismo se reforzará la cocina del Centro Donostia con personal propio, ya que se prevé suministrar al Centro Ategorrieta desde la cocina del de Donostia.

c) El Plan de mejora de la Gestión Lingüística puesto en marcha en el 2016, tiene como meta alinearse con los objetivos generales marcados por la Diputación Foral de Gipuzkoa. Uliazpi desea alcanzar la excelencia también en el ámbito de la gestión lingüística, y para ello se ha dotado de los mismos recursos que los dispuestos en el 2017 y 2018, al objetivo de mejorar las competencias lingüísticas de su personal.

- **Capítulo 2: Bienes y servicios**
Este capítulo sufre un incremento de 92.000 euros, un 1,93% sobre el del 2018, motivado

horren arrazoi nagusia aurreikusten den %2ko prezio-gehikuntza (KPI) izan da.

- **6. Kapitulua: Inbertsio Errealak**.

Kapitulu honetan 2019rako dagoen zenbatekoan 135.000 euroko murrizpen bat aurreikusten da, hots, % 22,7ko murrizpena 2018arekin alderatuta.

2019. urtean, Donostia eta Ategorrieta Zentroen artean sukaldea bateratzeko beharrezko egokitzapenak egitea aurreikusten da, eta horrez gain, bi zentro horietan garbitegi-zerbitzua lekualdatu ahal izatea, lehendik daudenez gain birjarpenerako beste bi ibilgailu txiki erostea eta sistema informatiko batzuk garatzea.

fundamentalmente por el incremento de precios prevista (IPC) de un 2%.

- **Capítulo 6: Inversiones Reales**

La cuantía en este capítulo para el 2019, contempla una reducción de 135.000 euros un –22.7% con respecto al 2018.

Durante el 2019, se prevé realizar las adaptaciones necesarias para la fusión de la cocina entre el Centro Donostia y Ategorrieta, así como un posible traslado del servicio de lavandería para estos mismos dos centros, la compra de dos vehículos pequeños de reposición sobre los existentes y el desarrollo de sistemas informáticos.